

**EKINTZA
SINDIKALEKO
TXOSTENA
(2022-2023)**

2023ko uztaila



AURKIBIDEA

1.- SARRERA	3
2.- TXOSTENAREN ONDORIO NAGUSIAK	3
3.- 2022/2023 KURTSOA DATUETAN	4
4.- KURTSOEN ARTEKO KONPARAKETA.....	5
5.- GERO ETA BORROKA GEHIAGO LANTOKI ETA SEKTOREETAN ENPLEGUAREN DEFENTSAN, BIZITZA BIZIGARRIEN ALDE ETA PREKARITATEAREN AURKA	6
6.- BORROKA MOLDEAK ETA ALIANTZAK.....	9
ERANSKINA	10

1.- SARRERA

Kapitalaren eta bizitzaren arteko talka gero eta gordinago azaleratzen ari da. Kapitalaren logikak eta elite ekonomiko baten interesek gidatzen dute mundua. Boterea eta aberastasuna gero eta esku gutxiagotan pilatzen da. Enplegua, zaintza eta aberastasunaren banaketaren aldeko politikak behar ditugu eta gure ekintza sindikalak helburu horri erantzuten dio, langile guztiak aintzat hartuz, sindikalgintza feminista garatuz eta sindikalismo antirrazistaranzko urratsak emanez.

Langileok sortu ez dugun agertokian geu kaltetuen, horrela laburbildu dezakegu munduko eta Euskal Herriko langileriak bizi duen egoera. Erosahaltenaren galera, prekarizazio modu berriak, pobretzea areagotzea, genero arrakalak mantentzea, zerbitzu publikoen eraispena eta pribatizazioa... Horixe da gero eta dualizazio handiagoa bizi duen langile klasearen errealitatea. Emakume edota sexu-genero disidentea, gaztea, migratua edota arrazializatua izan, modu desberdinean eragingo digu egoerak, zapalkuntzak modu gordinagoan eragingo baitigu kasu askotan.

Bizitza bizigarrien alde lan egiteko hautua egin du LABek, eta helburu hori lortzeko borrokak aktibatzea beste aukerarik ez dugu: tokian tokiko errealitateari loturiko borrokak, langileon beharren arabekoak. Kapitalaren ofentsiba gogorra ari da izaten, patronala ez dago prest bere irabaziak murrizteko, eta helburu hori eskuratzeko ez dauka langileon eskubideak zapaltzeko inolako erreparorik. Gainera, instituzioak kudeatzen dituzten alderdi politikoek ez dute inongo erreparorik zerbitzu publikoen pribatizazioa bultzatzeko, ezta euren politika publikoen bidez kapitala babesteko ere.

Langileriak ulertu du egoera zein den. Langileon lan eta bizi baldintzek okerrera egin ez dezaten borroka egitea beste aukerarik ez dugu; bizitza bizigarriak eraikitzeko prozesuan urrats berriak eman nahi baditugu, borroka eta mobilizazioa izango dira geure lanabesa. Aurtengo kurtsoa ere borroka sindikalen ugaritze nabarmenarekin bukatu dugu, eta datorren kurtzorako hautua ere garbia da: langileon borroken aktibazioa areagotzen jarraituko dugu.

2.- TXOSTENAREN ONDORIO NAGUSIAK

Kurtso honetan aktibaturiko borroken azterketak hiru ondorio nagusi utzi dizkigu:

- BORROKAK MEREZI DU.

Aurtengo kurtsoan iaz azpimarratu genuen borroka ziklo berriak jarraipena izan du, eta goranzko joeran jarraitu du borroken eta greben aktibazioak. Aurtengo kurtsoan, ordea, langileon borroken ondorioz lortutako garaipen eta hobekuntzek nabarmen egin dute gora. LAB parte aktibo izan den langile borroken %45,10 itxita dago dagoeneko; 10 hilabetetan 92 gatazka itxi dira.

Garaipen horiek lortu ahal izateko borroka molde desberdinak erabili ditugu, eta denak izan dira baliagarriak akordioak erdietsi ahal izateko. Aipamen berezia merezi dute molde desberdinak grebekin uztartu ditugun borrokek. Izan ere, langileek grebaren aldeko hautua egin duten gatazketan akordio eta garaipen gehiago lortu baititugu: ia 10 puntuko aldea izan da greba deitu ez den gatazkekin alderatuta. Edonola ere, kontuan izan behar dugu greba egiten dugun eremuek eragina dutela gainerako gatazkek desblokeatzeko garaian. Borrokak pizten ditugunean, lehen onuradun zuzenak eragindako langile horiek dira, baina eragina askoz ere zabalagoa izaten da. Are gehiago, kontuan hartzen badugu azken urteetan greba eta mobilizazioak eremu desberdinetako sektore eta enpresatara iritsi direla, baita tradizio sindikal apalagoa izan duten eremuetara ere. Langileon ahalduntze kolektiboa gertatzen ari da, eta patronalari mezu argi bat iristen zaio: jakin badaki gatazka ekidin nahi badu edukiak eskaini behar dituela.

- EMAKUMEON LANA DEBALUATZEN DUTE.

Arreta deitzen du grebak gainerako eremuetan baino proportzio handiagoan egin arren, eta, orokorrean, grebak egin ditugun eremuetan askoz ere gatazka gehiago itxi diren arren, gatazka gehien-gehienek irekita jarraitzen dutela sektore feminizatueta, administrazio publikoetako azpikontratetan eta zaintza lanak egiten dituzten eremuetan. Garaipenen portzentajea erdira jaisten da sektore feminizatu, zaintza lanetan ari direnen eta administrazio publikoetako azpikontratei dagokienez, are gehiago zuzenean kudeatutako sektoreei buruz ari garenean.

Datu horiek agerian uzten dute patronal eta administrazio publikoek funtsezko lanei, izan zaintza arlokoak zein beste-lako funtsezko zerbitzuetako langileek burutzen dituztenei, ematen dieten balio eskasa. Funtsezkoak ez diren lanetan, produkzioari gehiago lotutakoetan, industrian, greben eta mobilizazioen bidez patronala errazago mugiarazteak agerian uzten du lan batzuei eta besteei ematen dieten balioaren arteko desoreka.

- ADMINISTRAZIO PUBLIKOA INPOSATZAILEA DA.

Administrazio publikoak eredu izan beharko luke langile publikoei lan baldintza duin eta egonkorak eskaintzerakoan, eta ez da horrela izaten ari. Bestalde, administrazio publikoan, salbuespen bakanen batekin, zabaldua dagoen joera da ez negoziatzea. Negoziazio kolektiboaren hustea gertatzen ari da.

Horri zera gehitu beharko genioke, politika publikoak ez dituztela garatzen zerbitzu publikoak indartzeko perspektiban; alderantziz, sektore pribatuari begira eta beraren mesedetan garatzen dira aipatu politikak.

3.- 2022/2023 KURTSOA DATUETAN

- > 204 borroka piztu ditugu.
- > 108 borroketan greba erabili da. Beraz, greben presentzia borroken %52,94an egon da.
- > Sektore mailako borrokek 54 izan dira, horietatik 21 sektore feminizatuetan; hau da, nagusiki emakumeak ari diren-tan. Sektoreko borroken %59,26an erabili da greba.
- > Enpresa mailako borrokek 150 izan dira. 23 feminizatutako enpresetan.

Datuak sektoreka

Industria sektorea izan da itxitako gatazken portzentaje handiena duen sektorea, %68,18 itxita. Are, esan behar dugu industrian sektore mailan aktibaturiko gatazka guztiak itxi direla aurtengo ikasturtean.

Borroka gehien piztu den eremua zerbitzu pribatuena izan da, baita greba gehien aktibatu dena ere: gatazken %62,67. Eremu horretakoa izan da itxitako gatazken portzentaia txikiena (%44).

Zerbitzu publikoena da gatazka neurri handiengan bizirik dirauten eremua, alde handiarekin. Izan ere, gatazken %22 soilik itxi da.

GATAZKAK SEKTOREKA	INDUSTRIA	ZERBITZU PRIBATUAK	ZERBITZU PUBLIKOAK	GUZTIRA
OROKORREAN	66 (%32,25%)	75 (%36,76)	63 (%30,88)	204 (%100)
SEKTORE FEMINIZATUETAN	3 (%4,55%)	31 (%41,33)	10 (%15,87)	44 (%21,57)
GREBAREKIN	31 (%46,97%)	47 (%62,67)	30 (%47,62)	108 (%52,94)
ITXITA	45 (%68,18%)	33 (%44)	14 (%22,22)	92 (%45,1)

a) Azpikontratetako langileak, administraziopekoak eta zaintza eremukoak

Funtsezko zerbitzuetako langileen gatazka modu espezifikotan aztertu ditugu, bai administrazio publikoarentzat edo enpresa publikoarentzat zuzenean lan egiten duten langileenak, bai azpikontrata edo kontzertazio bidez zeharka eremu publikoarentzat lan egiten dutenenak. Bizitza sostengatzeko hain beharrezkoak diren lanak egiten dituzten langileen borrokek dira horiek, funtsezkoak, datuek argi erakusten duten bezala bai patronalak eta batez ere administrazio publikoak gutxiesten dituen lanak, borrokek aktibatuta ere aldarrikapenei bizkarra emanez. Izan ere, greben portzentajea batezbestekoaren gaineratik egon arren, gatazka gehienek irekita jarraitzen dute, batezbestekoaren oso gaineratik.

	BORROKAK	GREBAREKIN	ITXITA
AZPIKONTRATA/KONTZERTATUAK	51	30 %58,82	16 %31,37
PUBLIKOA/ENPRESA PUBLIKOAK	37	14 %37,84	7 %18,92
ZAINZA EREMUA	24	14 %58,33	6 %25,00

b) Sektore feminizatuetoako langileak ere bigarren mailan

Sektore feminizatuetoan aktibatuturiko gatazken %52,27an egin dugu greba, baina itxitako gatazken portzentajea %29,55 da, batezbestekoaren oso azpitik.

Sektore feminizatuak aztertuz, emakumeok egiten ditugun lanek patronal eta administrazio publikoarentzat balio txikiagoa dutela berresten dute datuek. Ezinbestekoa dugu emakumeok egiten ditugun lanei behar duten balioa aitortzea, sozialki zein ekonomikoki. Gainera, sexu-generoaren araberrako lan banaketarekin amaitu beharra ezinbestekoa da emakumeon lanari dagokion aitortza emateko.

Datuak herrialdeka

Gatazka gehien aktibatu diren herrialdea Bizkaia izan da, ondoko taulan agertzen den bezala. Edonola ere, langile aktiboek kopuruarekin alderatuz, Araba eta Nafarroa dira proportzioan gatazka eta greba gehiago aktibatu diren herrialdeak, eta itxitako gatazken proportzio handiena erakusten dutenak.

	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	NAFARROA	EAE	HEGO EUSKAL HERRIA	GUZTIRA
OROKORREAN	29	63	42	48	16	0	204
SEKTORE FEMINIZATUETAKOAK	3	18	8	10	5	0	44
GREBAREKIN	14	37	26	20	8	3	108
ITXITA	15	25	23	25	3	1	92

4.- KURTSOEN ARTEKO KONPARAKETA

Aktibatuturiko gatazken zein greben kopuruak gorantz jarraitzen du. Azken urteetan langileen artean dagoen ezinegona agerikoa da, erasoei aurre egiteko prestasuna erakusten ari dira Euskal Herriko langileak, baita euren bizi baldintzen hobekuntzaren aldeko borrokak aktibatuzkoa ere, hitzarmenen eta lan baldintzen defentsan zein kalitatezko zerbitzu publikoenean.

	2017/2018		2018/2019		2021/2022		2022/2023	
		GREBAK		GREBAK		GREBAK		GREBAK
BORROKA KOPURUA	124	67	127	80	171	93	204	108
SEKTORE FEMINIZATUETAKOAK	27		29		48		44	
SEKTORE MAILAKOAK	34		18		31		54	
SEKTOREKOAK ETA FEMINIZATUAK	12		7		18		21	
ENPRESA MAILAKOAK	90		109		140		150	
ENPRESAKOAK ETA FEMINIZATUAK	15		22		30		23	

5.- GERO ETA BORROKA GEHIAGO LANTOKI ETA SEKTOREETAN ENPLEGUAREN DEFENTSAN, BIZITZA BIZIGARRIEN ALDE ETA PREKARITATEAREN AURKA

LABek bizitzaren prekaritatea bere osotasunean borrokatzen du. Enpleguaren esparrua gainditzen dituen borroka susatzeko hautua egin dugu, lana bere osotasunean ulertu eta bizitzaren prekarizazioari aurre egiteko asmo sendoa dugu.

Era berean, lantegietan ekintza soziosindikala garatzeko konpromisoa garatzen ari gara, prekaritateari modu integralean aurre eginez, bizitza bizigarria izan ahal izateko proposamen eta borroka lantegietara eramanez. Lan eta bizi baldintza bizigarriak aldarrikatzen ditugu, enplegu duinaren alde lan egiteaz gain, gainerako lanetan ere arreta jarritz.

Funtsezko sektoreetan lan baldintzak hertsiki lotuta daude zerbitzu publikoen hobekuntzarekin; esaterako, jangeletan edo zaharren egoitzetan ratioen hobekuntzaren aldeko aldarria. Funtsezko lanak egiten dituzten langile horien guztien lan baldintzak hobetzearekin batera, zerbitzua bera hobetzen dugu. Edo zerbitzu publikoen eraisketa eta pribatizazioa salatu dugunean bezala, zerbitzuaren kalitatearen okertzean jarritz arreta eta indargunea, baina zeharka langileen lan baldintzei eragiten diela ere aintzat hartuz.

LABek modu aktiboan parte hartu duen eta aurtengo kurtsoan aktibaturiko borrokei dagokienez, hitzarmenaren defentsa edota lan eta bizi baldintzen hobekuntza izan da borrokan ehuneko handi-handienaren helburua, are gehiago sektore eremuan. Bizitza bizigarriak garatzeko neurrien alde egin dugu lan, eta honakoak izan dira borroka horietan defendatu ditugun gai nagusiak: eros-ahalmenaren bermea, gutxieneko 1.400 euroko soldata, soldata arrakalei aurre egitea, jardunaldiaren murrizketa eta baimenetan hobekuntzak. Bestalde, neurri txikiagoan eta enpresa eremuan sektoreetan baino presentzia handiagoarekin, erasoei aurre egiteko borroka izan ditugu; murrizketen, kaleratzeen edo itxieren aurka zentratu ditugu indarrak beste hainbat eremutan.

Borroka zehatzetan arreta jarritz, kurtso honetan lan baldintzen aldarria gainditu duten honako borroka azpimarratuko ditugu:

Osakidetza. Intersindikalak (LAB, SATSE, ELA, SME, CCOO, UGT) deituriko greba eta mobilizazioek bi aldarri nagusi izan dituzte: osasungintza publikoaren defentsa eta Osakidetzaren eraisketa salatzea batetik, eta langileentzat lan baldintza duinak ziurtatzea, bestetik. Borroka hauek oihartzun zabala izan dute sozialki, osasungintza publikoaren defentsan lanean diharduten plataformekin zein gainerako eragile sozialekin elkarlanean aritu baikara buru-belarri.

Osasunbidea. Azken hamarkadetan ikusi gabeko borroka martxan jartzea lortu genuen LAB, SAE, UGT, ELA eta CCOOek deituriko mobilizazio eta grebak aktibatuz. Osasunbidean LABek eraman zuen borrokan lidergoa, eta ordezkari txikia duten beste sindikatu batzuk gurera hurbiltzea lortu zuen. Sindicato Medico de Navarra eta SATSE egiten ari ziren bidea zaildu genuen (bakoitzarentzat akordio propioa lortu nahi zuena), eta Osasunbideko langile guztientzat akordio bat lortu genuen. Sail sindikalak, federazioak eta eskualde-herrialdeak batera lan egin genuen, borroka bat martxan jarri eta emaitzak lortu genituen. SAE, ELA eta CCOOek gogor kritikatu zuten akordioa ekarri zuen borroka emaitza moduan. Aipatzekoa da Osasunbideko langileek akordioaren ostean hauteskunde sindikaletan eman ziguten babesa, akordioaren alde egin genuen sindikatuok igoera nabarmena lortu baikenuen, gainerakoen kaltetan.

Zaintza eremuko langileak borroketan aitzindari

Bizkaiko zaharren egoitzak. Elkarlanerako aukera egon ez bada ere, eta LABek ordezkari txikia izan arren, borroka dinamika propioa aktibatzea lortu dugu. Langileek, emakumeak gehienak, ohiko mobilizazio eta grebak deitzeaz gain modu aktiboan parte hartu dute antolaturiko gainerako ekimenetan: itxialdia, baraualdia, kanpaldia... Azpikontratetako langileak izan arren langile publikoak direla aldarrikatu dugu, eta oinarriko zerbitzua ematen duten langileak direla. Beharko luketen aitortza sozial eta ekonomikoa lortze bidean egin dituzte mobilizazioak. Zaintza sistema publikoaren garatze bidean kokatu ditugu aldarrikapenak, eta hori zerbitzua hobetzeko eta langileen lan baldintzak hobetzeko nahitaezkoak diren aldarrikapenekin uztartu dugu; esaterako, ratioen hobekuntza edota soldata duinak lortzea.

Etxeko langileak. Sindikalizatu gabeko eremua dugu etxeko langileena, eremu bereziki feminizatu eta arrazializatu. Lan eta bizi baldintza oso gogorrak dituzte, ez zaizkie langileen estatutuko eskubide guztiak aintzat hartzen eta indarkeria mota desberdinak jasaten dituzte. LABek etxeko langileen sail sindikala eratu du dagoeneko, EAEko hitzarmen propioaren eta lan eta bizi baldintzen alde lan egiteko. Kurtso honetan, besteak beste, mobilizazioa egin genuen Martxoaren 8an, zaintza sistema publiko komunitarioaren alde eta etxeko langileen lan eta bizi baldintzak hobetzeko neurriak exijituz. Gainera LABek, 52 urtetik gorako etxeko langileentzat langabezia subsidiaroko erabakigarria izango den epaia lortu du, 2022ko urriaren 1etik aurretik eginiko kotizazio aldiak aintzat hartzera behartzen duena.

Prekaritatearen aurkako eta kalitatezko enpleguaren aldeko borrokak

Langileon bizitza zapalkuntza anitzek zeharkatzen dute; esaterako, sexu-generoagatikoak, adinagatikoak edota jatorri eta arrazagatikoak. Zapalkuntza horiek gainditu eta bizitza bizigarriak eraiki nahi baditugu, ezinbesteko baldintza da prekaritatearekin amaitzea. Prekaritatea forma berriak ari da hartzen, sistema neoliberalak lan eremuaren etengabeko aldaketa bultzatu eta berau baliatzen du zapalkuntza forma berriak sortzeko: digitalizazioa euren interesen arabera erabiliz, langileen banaketa eta atomizazioa bultzatuz, iruzurrean sorturiko figurak bultzatuz edota bestelako tresnak erabiliz.

Prekaritatearen aurkako borroka gure lehentasunen artean egon da ikasturte honetan. Negoziazio kolektiboari lotutako borroka asko izan dugu aurten, prekaritateari aurre egin eta lan eta bizi baldintzak hobetzea helburu, baita prekaritate egoerei modu espezifikoan aurre egiteko borroka ugari ere.

Gipuzkoako kiroldegiak. Hamar urtetan gure ordezkariak hirukoiztu ondoren gehiengo lortu eta hitzarmena berreskuratzea lortu dugu, langile askori %30eko soldata igoera eta 35 orduko lanastea bermatuz, besteak beste.

Osakidetzako garbiketa. Borroka eredugarria egin dute Osakidetzako garbitzaileek, intersindikalak (LAB, CCOO, UGT, ESK) deituriko ia 100 greba egun mobilizazio eta protesta desberdinekin uztartuz. Sindikatuok deituriko greba eta mobilizazioak Gora Garbitzaileak kolektiboa berriz aktibatu eta mobilizatzeko molde berriekin uztartzea lortu dute, enpresak langileon aldarrikapenetara hurbiltzea lortuz. Enprekin aurreakordioa lortu ondoren, Osakidetzako garbitzaileekiko homologazioa berretsiz eta karrera profesionala aitortuz, Osakidetzak ere bere egin du aipatu akordioa.

Era berean, kalitatezko enpleguaren aldeko gatazkak azpimarratu behar ditugu:

Gorabide: langileek lan eta bizi baldintzak hobetzeko borroka eredugarria egin dute, 26 greba egun bestelako mobilizazio eta protestekin uztartuz. Enpresa mugiaraztea lortu dugu, LAB eta ESK-k lorturiko eta langileek babesturiko akordioak langileentzat eros-ahalmena bermatu du, neurri sozial garrantzitsuak ere lortuz.

EAEko justizia administrazioa. Estatu mailako greba planteamentuak bertoko errealitate eta aldarrikapenei erantzuten ez ziela ikusiz, EAerako aldarrikapen propioak jarri genituen mahai gainean, bertoko funtzio publikoko langileekin ekiparazioa eskatuz. Justiziako langileek borrokarekin bat egin eta hainbat egun eta astetan luzatu zen borrokak garaipen gozoa ekarri zien langileei, aldarrikapen zentrala zen ekiparazioa lortuz.

Gasteizko Tranbia (EuskoTren). Gatazka gehienetan borrokak bidelagun desberdinekin abiatu ditugu, sindikatu edota eragile sozial anitzekin elkarlanean. Ez honela Gasteizko Tranbian, LABek bakarrik deitu baitzituen bertan mobilizazioak. Ordutegi eta txanden arazoari irtenbide bat ematea izan da borrokaren helburua, lortu egin dena. Asanbladak babestu zuen akordioa lortu dugu enpresan. LAB eta langileen indarra eta konpromisoarekin emaitzak lortu ditugu.

Bizkaiko metalgintza. Azken hitzarmena sinatu eta hiru urtera, berriro borrokari ekin behar izan diogu, 11 greba egun, mobilizazio eta ekintza ugari eginez. Patronalaren jarrerak gatazka desblokeatzen lagundu ez badu ere, langileriak irabazi duela esan dezakegu, patronalak ez baititu bere helburuak lortu eta guk geureak bai: aurrerapauso garrantzitsuak lortu ditugu, sektoreko langileen lan eta bizi baldintzak hobetzea dakarten neurriak, noiz eta testuinguru ekonomiko eta sozial konplexu honetan. 36.000 langilek zuzenean sektoreko hitzarmena dute; beste 20.000 dira enpresa hitzarmena dutenak.

Hitzarmen honek guztientzat zoru duin bat bermatu du, oinarri on bat lantokietan hobekuntzak borrokatzen jarraitzeko.

Mercedes. Urte luzez borroka piztu gabe izan ondoren, lan hitzarmenaren aldeko borroka piztea lortu genuen, enpresaren eskaintza eskasaren aurrean eta langileon baldintzak okertzen ari zirela jabetu ondoren. 9 egunez, greben bidez ekoizpena etetea lortu genuen, eta borrokaren hasieran jarritako helburu guztiak bete ez bagenituen ere, enpresan borrokaren balioak indarra hartzea lortu dugu.

Enpleguaren defentsa

Enpleguaren defentsa izan da kurtso honetan aktibaturiko borroken beste zutabe garrantzitsu bat. Enpresa itxieren, kale-erazteen edota deslokalizazioen aurka, langileria kalera atera eta borroka eredugarriak aktibatu ditugu.

Horietako bat da **Super Berriak**-ekoa: Enplegua Erregulatzeko Espedientea aurkeztu ondoren, langileek bultzaturiko borrokaren ostean espedientea bertan behera utzi eta langile guztiak berkokatzea lortu genuen.

Sindikatu eta ekintza sindikal antirrazistarantz

LAB eredu sindikala berritzen ari da, sindikalismo feministaren aldeko apustu argia egin dugu eta horren adierazle da sektore feminizatuetan egiten dugun ekintza sindikal borrokalaria. Bestalde, LAB langile guztien sindikatu izan dadin lan egiten dugu, sindikalizatu gabeko eremu berrietan ekintza sindikala eginez. Orain urrats berriak emateko prestatzen ari gara, sindikatu eta ekintza sindikal antirrazistarantz.

Idazkaritza Antirrazista sortua dugu, ibilbide baten emaitza gisa. Ibilbide bat egina badugu ere, apaltasunetik egiteke dugun bidea luzea dela esan beharrean gaude. Kurtso honetan Idazkaritza Antirrazista sortu eta datozen urteetarako plan estrategikoa onartu dugu. Bien bitartean, borroka antirrazista gure ekintza sindikalaren zutabeetako bat izateko bitartekoak jartzen hasi gara.

Gure ekintza sindikala antirrazista izan dadin, ezinbestekoa zaigu kapitalaren estrategia zapaltzaileari mugak jartzea. Lan baldintzak hobetu beharrean, langile sektore ahulenez jabetzen da prekarizazioan sakontzeko. Hainbat sektoretan hasia da inboluzioa: ostalaritzan, eraikuntzan, landa eremuan, zaintza esparruan... LAB antolakuntzarako tresna izango da langile horiek guztientzat.

Huerta de Peralta. Langile arrazializatuen presentzia handiko landa eremuko lantokian, orain urte batzuk eginiko greba eredugarriaren ostean borrokan jarraitzen dute, lorpenak eskuratuz, eskubide berrien jabe egiten ari baitira urratsez urrats. Esaterako, kurtso honetan astelehenetik ostiralerako jarduna lortu dute.

Langile kolektibo berrientzat sindikalismoa egiten

LABek erabakia du langile kolektibo berrietara heltzea, ekintza sindikalerako eskaintza zehatza egitea, kolektibo horiek borrokara batzeko asmoarekin. Horren haritik esperientzia ugari izan ditugu kurtso honetan.

Horietako bi aipatuko ditugu:

Riderren sail sindikalekin lanean jarraitzen dugu, bide judiziala mobilizazioekin uztartuz.

Amazon: enpresa Euskal Herrian kokatu eta lau urtetara, langileak antolatu eta borrokara ateratzeko akuilu izan gara, sail sindikala antolatuz eta abenduan bi greba egun eginez.

6.- BORROKA MOLDEAK ETA ALIANTZAK

Borroka eta greba eraginkorrak ditugu helburu, patronalari ahalik eta presiorik handiena eta langileei ondoriorik arinenak eragiten dizkieten moldeak. Oraindik greba da langileon borroka molderik eraginkorrena patronala presionatu eta akordioak lortu ahal izateko. Azken urteetan lan harremanetan eman diren aldaketekin (prekaritatearen gorakada, negozioazio kolektiboaren eremutik kanpo geroz eta langile gehiago, lan batetik bestera joan etorrian dabiltzan langileak) bai administrazioak inposatzen dituen gehiegizko zerbitzu minimoekin ere, greba eskubidearen urraketa nabarmena da langile asko eta askorentzat.

Era berean, borroka molde berrietan sakontzen ari gara. Borrokak barneratzaileak izatea bilatzen dugu eta langileen atxikimendua izan dezatela, azken hauen protagonismoa bermatuz. Egoera etengabe aldatzen ari den neurrian, borroka moldeak ere birpentsatu eta berri behar ditu langile klaseak, eraginkortasuna eta langileen inplikazioa bilatuz. Sindikalismoa egiteko modu berrietara garamatza ariketa honek, eta horretan ari da LAB azken urteotan, prekaritate modu berriek behar duten borroka eskaintza berrituz eta horren arabera borroka moldeak berrasmatuz.

Horrek guztiak erronka berriak jartzen dizkigu sindikatuoi, borrokak eraginkortzeko, grebak beti ere beste mobilizazio eta borroka molde batzuekin bateratuz. Era berean, garrantzi berezia ematen diogu sektore edo lantokietako greba eta mobilizazioaren sozializazioari, kaleratzeari. Guk bultzatu eta aktibatzen ditugun borroka gehienetan grebak presentzia dauka eta oso modu positiboan baloratzen dugu hori. Beraz, grebari dagokion garrantzia eta balioa eman beharra daukagu.

Bide horretan, eremu publikoan batez ere erabiltzaile eta eragile sozialekin egindako elkarlana azpimarratu nahi genuke. Langile borrokak borroka sozialekin uztartu eta norabide berean elkarrekin lan egiteak borrokak beste dimentsio bat izatea ahalbidetzen du, jendartearen eta langileen aldarrikapenak norabide berean bat eginez.

ERANSKINA

1.- SEKTORE MAILAKO BORROKAK

EREMUA	SEKTOREA	FEMINIZATUA	BORROKA AKTIBATZEKO ARRAZOIA	BORROKA MOLDEAK	EGOERA
ARABA					
Industria	Metalgintza	EZ	Hitzarmena	Grebak eta mobilizazioak	ITXITA
Industria	Ardogintza	EZ	Hitzarmena	Elkarretaratzeak	ITXITA
Zaharren egoitzak		BAI	Hitzarmena	Grebak eta mobilizazioak	IREKITA
Esku hartze soziala		EZ	Hitzarmena	Mobilizazioa	IREKITA

EREMUA	SEKTOREA	FEMINIZATUA	BORROKA AKTIBATZEKO ARRAZOIA	BORROKA MOLDEAK	EGOERA
BIZKAIA					
Eraikinen garbiketa	Garbiketa	BAI	Hitzarmena	Grebak eta mobilizazioak	ITXITA
Ehungintza merkataritza	Merkataritza	BAI	Hitzarmena	Grebak, martxak, agitazio eta propaganda	ITXITA
Merkataritza orokorra	Merkataritza	BAI	Hitzarmena	Grebak, martxak, agitazio eta propaganda	IREKITA
Larru eta oinetako merkataritza	Merkataritza	BAI	Hitzarmena	Grebak, martxak, agitazio eta propaganda	IREKITA
Ostalaritza	Ostalaritza	EZ	Hitzarmena	Grebak eta mobilizazioak	IREKITA
Bulegoak	Bulegoak	BAI	Hitzarmena	Mobilizazioak, agitpro, greba	IREKITA
Gasolindegia	Gasolindegia	EZ	Hitzarmena	Grebak eta elkarretaratzeak	ITXITA
Kiroldegia	Kirolak	EZ	Hitzarmena		IREKITA
Industria	Metalgintza	EZ	Hitzarmena	Grebak eta mobilizazioak	ITXITA
Zaharren egoitzak		BAI	Hitzarmena	Grebak eta mobilizazioak	ITXITA
Esku hartze soziala		EZ	Hitzarmena	Grebak eta mobilizazioak	IREKITA
Etxez etxeko laguntza		BAI	Hitzarmena	Grebak eta mobilizazioak	ITXITA
Etxeko langileak		BAI	Lan-baldintzak	Mobilizazioak	IREKITA

EREMUA	SEKTOREA	FEMINIZATUA	BORROKA AKTIBATZEKO ARRAZOIA	BORROKA MOLDEAK	EGOERA
GIPUZKOA					
Foru Aldundiko garbiketa	Garbiketa	BAI	Hitzarmena	Grebak eta mobilizazioak	IREKITA
Ehungintza merkataritza	Merkataritza	BAI	Hitzarmena	Grebak eta mobilizazioak	ITXITA
TAO	Aparkalekuak	EZ	Hitzarmena	Grebak eta mobilizazioak	IREKITA
Elikadura	Merkataritza	BAI	Hitzarmena	Greba deialdia, mobilizazioak	ITXITA
Arrain eta itsaskiak	Merkataritza	EZ	Hitzarmena	Grebak eta mobilizazioak	ITXITA
Garbiketa	Garbiketa	BAI	Hitzarmena	Agitazioa eta propaganda	IREKITA
Kiroldegiak	Kirolak	EZ	Hitzarmena	Mobilizazioa deszentralizatuak	ITXITA
Ostalaritza	Ostalaritza	EZ	Hitzarmena	Mobilizazioak	ITXITA
Industria	Metalgintza	EZ	Hitzarmena	Mobilizazio ugari	ITXITA
Industria	Grafikagintza	EZ	Hitzarmena	Grebak eta mobilizazio ugari	ITXITA

EREMUA	SEKTOREA	FEMINIZATUA	BORROKA AKTIBATZEKO ARRAZOA	BORROKA MOLDEAK	EGOERA
NAFARROA					
Kirol kudeaketa	Kirol kudeaketa	EZ	Hitzarmena	Greba, elkarretaratzeak, agitazio eta propaganda	IREKITA
Bulegoak	Bulegoak	EZ	Hitzarmena	Lanuzteak eta mobilizazioak	IREKITA
Ehungintza merkataritza	Merkataritza	BAI	Hitzarmena	Mobilizazioak	IREKITA
Jantokiak	Kolektibitateak	BAI	LBOA	Greba deialdia, mobilizazioak	ITXITA
Nekazaritza eta abeltzaintza	Nekazaritza eta abeltzaintzakoa	EZ	Hitzarmena		IREKITA
Bidaiariak	Garraioa	EZ	Hitzarmena	Greba eta elkarretaratzeak	ITXITA
Ostalaritza	Ostalaritza	EZ	Hitzarmena	Greba eta elkarretaratzeak	IREKITA
Gobernuaren enpresa publikoak		EZ	Hitzarmena. Eremua sortzea	Lanuzteak eta mobilizazioak	IREKITA
Hezkuntza publikoa		BAI	Ratioak Karrera /soldatak	Elkarretaratzeak	IREKITA
Zaharren egoitzak		BAI	Hitzarmena. Eremua sortzea	Greba eta mobilizazioak	IREKITA
Aisialdia		EZ	Hitzarmena	Greba eta mobilizazioak	IREKITA
Esku hartze soziala		EZ	Nafarroan hitzarmena izateko patronalak jarritako helegitea	Lanuztea	ITXITA
Funtzio publikoa		EZ	Lan baldintzak Publikoa defendatu	Greba eta mobilizazioak	ITXITA
Haurreskolak		EZ	Hitzarmena		IREKITA

LABen EKINTZA SINDIKALEKO TXOSTENA (2022/2023)

EREMUA	SEKTOREA	FEMINIZATUA	BORROKA AKTIBATZEKO ARRAZOIA	BORROKA MOLDEAK	EGOERA
EAE					
Osakidetzako garbiketa		BAI	Hitzarmena	Greba eta mobilizazioak	ITXITA
Kolektibitateak	Jangela ez zuzena	BAI	Hitzarmen propioa	Agitazioa eta propaganda	IREKITA
Kolektibitateak	Kudeaketa zuzena	BAI	Ratioak Karrera /soldatak	Agitazioa eta propaganda	IREKITA
Kutxabank	Banka	EZ	Prekaritatea	Greba, elkarretaratzeak, agitazio eta propaganda	IREKITA
Anbulantziak		EZ	Hitzarmena	Mobilizazioa	IREKITA
Hezkuntza publikoa		BAI	Hezkuntza Legea	Grebak	IREKITA
Hezkuntza publikoa		BAI	Formazio behartua	Elkarretaratzeak	IREKITA
Gizarte ekimeneko ikastetxeak		EZ	Hitzarmena	Grebak eta mobilizazioak	IREKITA
Suhiltzaileak (3 hiriburuetakoak eta 3 foru aldundietakoak)		EZ	Legearen kontra / zerbitzu publiko eta indartsuak	Manifestazioa	IREKITA
Funtzio publikoak		EZ	Enplegu Publikoaren Legea	Elkarretaratzeak	IREKITA

EREMUA	SEKTOREA	FEMINIZATUA	BORROKA AKTIBATZEKO ARRAZOIA	BORROKA MOLDEAK	EGOERA
HEGO EUSKAL HERRIA					
Teknikariak	Teknikariak	EZ	Hitzarmena	Greba, mobilizazioak, agitazio eta propaganda	IREKITA
Enplegu Zentro Bereziak		EZ	Lan baldintzak	Elkarretaratzeak	IREKITA
Funtzio Publikoa		EZ	Berton erabaki Eros ahalmena bermatu	Mobilizazioak	IREKITA

2.- ENPRESETAKO GATAZKAK

EREMUA	SEKTOREA	FEMINIZATUA	BORROKA AKTIBATZEKO ARRAZOA	BORROKA MOLDEAK	EGOERA
ARABA					
Super Berriak (A+B)	Elikadura	BAI	Enplegu Erregulazio Espedientea	Grebak, mobilizazioak, propaganda	ITXITA
Gas to move	Salgaien garraioa	EZ	Enplegu Erregulazio Espedientea	Grebak, mobilizazioak, propaganda	ITXITA
Saltoki	Merkataritza	EZ	Kaleratze arrazista	Salaketa	ITXITA
Mercadona Jundiz	Merkataritza	EZ	Hobekuntzak	Mobilizazioak, propaganda	ITXITA
Laminaciones Arregui	Metalgintza	EZ	Hitzarmena		ITXITA
Detesa	Metalgintza	EZ	Hitzarmena		ITXITA
Fournier		EZ	Hitzarmena	Grebak	ITXITA
Baika		EZ	Hitzarmena		IREKITA
Michelin Gasteiz	Kimikak	EZ	Hitzarmena	Grebak, manifestazioak, propaganda	ITXITA
Aianox	Metalgintza	EZ	Hitzarmena	Paroak	ITXITA
Envases	Metalgintza (hitzarmen estatala)	EZ	Enpresa ituna	Greba, elkarretaratzeak, mobilizazioak	ITXITA
Ferro		EZ	Hitzarmena	Greba eta elkarretaratzeak	ITXITA
Talleres Abasolo	Metalgintza	EZ	Itxiera arriskua, konkurtsoan	Greban hilabete baino gehiago. Kotxe karabanak, elkarretaratzeak, panfleto banaketak eta SOS Aiaraldearekin mobilizazioak	IREKITA
Glavista	Eraikuntza eta beira. Keramika	EZ	Enpleguaren defentsan. Konkurtsoan dago eta salmentan jarri zuten	Elkarretaratzeak astero, mobilizazioak eta SOS Aiaraldearekin batera mobilizazioak	IREKITA
Aiala Vidrio	Eraikuntza eta beira. Keramika	EZ	Hitzarmena	Grebak, elkarretaratzeak, mobilizazioak	IREKITA

LABen EKINTZA SINDIKALEKO TXOSTENA (2022/2023)

EREMUA	SEKTOREA	FEMINIZATUA	BORROKA AKTIBATZEKO ARRAZOIA	BORROKA MOLDEAK	EGOERA
ARABA					
SDA Factory	Metalgintza	EZ	Lan baldintzak eta enpleguaren eta jarduera industrialaren bermea	Greba	IREKITA
Serveo	Metalgintza	EZ	Hitzarmena	Mobilizazioak, kontzentrak	IREKITA
Baumann Muelles	Metalgintza	EZ	Enpresa ituna	10 greba egun, propaganda	ITXITA
Inauxa	Metalgintza	EZ	Enpresak ABLEen bidez egin nahi du kontratazioa	Greba eta mobilizazioak	IREKITA
Osakidetza – Arabako landa eremuko lehen mailako arreta	Osasungintza	EZ	Lan baldintzak	Greba	IREKITA
Gasteizko Udala	Udal administrazioa	EZ	Negoiazio kolektiboaren blokeoa eta jubilazio primak	Kontzentrazioak	IREKITA
Amurrioko Udala	Udal administrazioa	EZ	Eros-ahalmena bermatzea	Mobilizazioak	IREKITA
Indesa		EZ		Mobilizazioak	IREKITA
Gureak	Enplegu Zentro Berezia	EZ		Mobilizazioak	IREKITA
Euskotren – Gasteizko tranbia		EZ	Txandak eta ordutegia	Greba	ITXITA

LABen EKINTZA SINDIKALEKO TXOSTENA

EREMUA	SEKTOREA	FEMINIZATUA	BORROKA AKTIBATZEKO ARRAZOIA	BORROKA MOLDEAK	EGOERA
BIZKAIA					
IDE	Informatika	EZ	Estatalizazioa	Greba	IREKITA
Dia Bizkaia	Elikadura merkataritza	BAI	Hitzarmena	Greba eta elkarretaratzeak	IREKITA
Bilboko TAO	TAO	EZ	Hitzarmena	Greba eta elkarretaratzeak	ITXITA
SOS 112	Telemarketin	BAI	Murrizketak / Pleguekin batera hitzarmen aldaketen saiakera		IREKITA
Homeserve	Telemarketin	BAI	Ituna	Greba eta elkarretaratzeak	IREKITA
Lanalden	Telemarketin	BAI	Hitzarmen propioa	Greba eta propaganda	IREKITA
UTE Taludes	Mantenua	EZ	Hitzarmen propioa	Greba eta propaganda	ITXITA
Amazon	Garraioa	EZ	Hitzarmen aldaketa eta jazarpen sindikala	Greba eta elkarretaratzeak	IREKITA
Erkoreka	Elikadura merkataritza	BAI	Hitzarmen propioa	Greba eta elkarretaratzeak	ITXITA
HyM	Ehungintza	BAI	LBOA	Greba eta elkarretaratzeak	ITXITA
Mercabilbao	Laguntzaileak	EZ	Hitzarmen propioa	Greba eta elkarretaratzeak	ITXITA
Erandio jangela	Kolektibitateak	BAI	Hitzarmenaren aplikazioa	Greba eta elkarretaratzeak	IREKITA
Casino Bilbao	Jokoak	EZ	Hobekuntzak	Elkarretaratzeak	IREKITA
Durangoko ikastola	Irakaskuntza	BAI	Hitzarmenaren hobekuntza		IREKITA
AP 8	Mantenua	EZ	Hobekuntzak	Greba	ITXITA
Bilbao Kirolak-eko lorenzainak	Lorezaintza	EZ	Hobekuntzak	Greba	ITXITA
Cartonajes Lantegi	Grafikagintza	EZ	Soldata ituna	Paroak eta elkarretaratzeak	ITXITA
Cartisa	Grafikagintza	EZ	Enpresa ituna	Mobilizazioak	ITXITA
Metal Performers	Metalgintza	EZ	Kaleratzea	Mobilizazioak, propaganda	IREKITA
Mecanizados Mear	Metalgintza	EZ	Ituna	10 greba egun	ITXITA
Alzuaran	Metalgintza	EZ	Ituna	Grebak	IREKITA
WEC	Metalgintza	EZ	Ituna	Greba eta elkarretaratzeak	ITXITA

LABen EKINTZA SINDIKALEKO TXOSTENA (2022/2023)

EREMUA	SEKTOREA	FEMINIZATUA	BORROKA AKTIBATZEKO ARRAZOIA	BORROKA MOLDEAK	EGOERA
BIZKAIA					
Aludium	Metalgintza	EZ	Hitzarmena	Elkarretaratzeak	ITXITA
Agria	Metalgintza	EZ	Kaleratzeak	Mobilizazioak	ITXITA
Microdeco	Metalgintza	EZ	Konkurtoan. Enplegu suntsiketa	Mobilizazioak	IREKITA
Teknia					IREKITA
MFS Sistering		EZ	Nominak kobratzeko atzerapenak, itxiera EEEda	Grebak	ITXITA
ACB Sestao	Metalgintza	EZ	Prima bat kendu nahi diete	Lanuzteak	IREKITA
PCB		EZ	Delegatu bati lan jazarpena	Salaketa	ITXITA
Vectalia Txorierri (Bizkaibus)	Garraioa	EZ	Hitzarmena	Grebak eta mobilizazioak	ITXITA
AENA Loiu	Garraioa	EZ	Azpikontratak	Elkarretaratzeak	IREKITA
Barakaldoko Udala	Udal administrazioa	EZ	Euskara	Elkarretaratzeak	IREKITA
Bizkaiko Foru Aldundia eta Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundea		EZ	Soldatak, hitzarmena, egonkortzea, jubilazioak, ...	Mobilizazioak	IREKITA
Bizkaiko Foru Aldundia		EZ	Hitzarmena	Mobilizazioak	IREKITA
Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundea	Foru administrazioa	EZ	Zaintza sistema indartu	Mobilizazioak	IREKITA
Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundea	Foru administrazioa	EZ	Hitzarmena	Mobilizazioak	IREKITA
Erandioko Udala	Udal administrazioa	EZ	Negoiazio kolektiboa eta kontziliazio neurriak	Mobilizazioak	IREKITA
Erandioko Udala	Udal administrazioa	EZ	Euskararen kontrako erasoak	Mobilizazioak	IREKITA
Gorabide	Aniztasun funtzionala	EZ	Hitzarmena	Grebak	ITXITA
APNABI	Aniztasun funtzionala	EZ	Hitzarmena	Lanuzteak eta grebak	ITXITA
Gaude	Aniztasun funtzionala	EZ	Hitzarmena	Lanuzteak eta grebak	ITXITA

LABen EKINTZA SINDIKALEKO TXOSTENA

EREMUA	SEKTOREA	FEMINIZATUA	BORROKA AKTIBATZEKO ARRAZOA	BORROKA MOLDEAK	EGOERA
BIZKAIA					
Madres Mercedarias	Aniztasun funtzionala	EZ	Hitzarmena. Enpresa itxi	Grebak	IREKITA
Peñascal	Zaharren egoitza	BAI	Kaleraketa	Mobilizazioak	IREKITA
ASPACE	Aniztasun funtzionala	EZ	Hitzarmena	Grebak	IREKITA
Barakaldoko Udala	Udal administrazioa	EZ	Lanpostuen balorazioa	Mobilizazioak	IREKITA
Bilboko Udala	Udal administrazioa	EZ	Negoiazioa, pribatizazioa, soldatak, lanpostuen baremazioa, ...	Mobilizazioak	IREKITA
Santa Mariñe zahar egoitza (Urduliz)	Zaharren egoitza	BAI	Langileei ez dagozkien funtzioak egitera behartu	Lanuzteak	IREKITA
Transfusio eta Giza Ehunen Euskal Zentroa Galdakaoko ospitalean	Osasungintza	BAI	Diskriminazioa. Osakidetzako langileekin parekatzea	Grebak	ITXITA
Posta		EZ	Zerbitzua hobetzea. Langile falta	Mobilizazioak	IREKITA
Bilboko Udaleko suhiltzaileak	Udal administrazioa	EZ	Lan baldintzak. Errefortzuak	Grebak	IREKITA

LABen EKINTZA SINDIKALEKO TXOSTENA (2022/2023)

EREMUA	SEKTOREA	FEMINIZATUA	BORROKA AKTIBATZEKO ARRAZOIA	BORROKA MOLDEAK	EGOERA
GIPUZKOA					
Arrasateko lorezainak	Lorezaintza	EZ	Hitzarmen propioa	Elkarretaratzeak eta 70 greba egun	ITXITA
Empark Donostia	Aparkalekuak	EZ	Hitzarmen propioa	Greba	IREKITA
Senra	Ostalaritza	EZ	Arrazismoa	Elkarretaratzeak	ITXITA
Canon Eibar	Kopistegia	EZ	Arrakala	Greba	ITXITA
Mendaroko ospitala	Kolektibitateak	BAI	Ekiparazioa	Lanuzteak	IREKITA
GAES	Merkataritza	BAI	Hobekuntzak	Grebak	ITXITA
DHL	Garraioa	EZ	Hobekuntzak	Grebak eta elkarretaratzeak	IREKITA
Irun Campitos	Kiroldegia	EZ	Hobekuntzak	Grebak	ITXITA
Kirolekintza	Kiroldegia	EZ	Hobekuntzak	Mobilizazioak	IREKITA
CAFeko jangela	Kolektibitateak	BAI	Hobekuntzak	Mobilizazioak	IREKITA
Michelin Lasarte	Kimikak	EZ	Hitzarmena	Grebak	ITXITA
Egile Mechanics SLU	Metalgintza	EZ	Kaleratze arbitrarioa jarrera arazoak	Elkarretaratzeak	ITXITA
Pasaban	Metalgintza	EZ	Enpresa hitzarmena	Lanuzteak eta elkarretaratzeak	IREKITA
Siemens Gamesa	Metalgintza	EZ	Enpresaren salmenta eta hitzarmena	Lanuzteak	ITXITA
Fudike	Metalgintza	EZ	Enpresa hitzarmena	Grebak	IREKITA
Tuermecca	Metalgintza	EZ	Enpresa hitzarmena	Lanuzteak eta grebak	ITXITA
CIE Legazpi	Metalgintza	EZ	Enpresa hitzarmena	Grebak	ITXITA
Orreaga Estructuras y Obras	Metalgintza	EZ	Soldaten ordainketa	Elkarretaratzeak, propaganda	ITXITA
GRI Castings	Metalgintza	EZ	Itxiera EEE	Elkarretaratzeak eta manifestazioak	ITXITA
Sidenor Azkoitia	Metalgintza	EZ	Behin-behinekotasuna mugatzea	Elkarretaratzeak	IREKITA
ABC	Metalgintza	EZ	Hitzarmena	Greba	ITXITA
AYA	Metalgintza	EZ	Jazarpen sindikala	Mobilizazioak	IREKITA
GOL	Metalgintza	EZ	Hitzarmena	Mobilizazioak	IREKITA
Indar	Metalgintza	EZ	Hitzarmena	Grebak	ITXITA
Estanda	Metalgintza	EZ	Hitzarmena	Grebak	ITXITA
Lau Lagun	Metalgintza	EZ	Kaleratzea	Agitazio eta propaganda	ITXITA
Uliazpi		EZ	Euskararen kontrako erasoa	Elkarretaratzeak	IREKITA

EREMUA	SEKTOREA	FEMINIZATUA	BORROKA AKTIBATZEKO ARRAZOIA	BORROKA MOLDEAK	EGOERA
GIPUZKOA					
San Markosene (Orereta)	Zaharren egoitza	BAI	Hitzarmena	Elkarretaratzeak	IREKITA
Atzegi		EZ	Hitzarmena. Lan orduak, KPI...	Elkarretaratzeak	IREKITA
INVIZA (Asuncion Klinika)	Osasungintza pribatua	BAI	Hitzarmena	Grebak eta mobilizazioak	IREKITA
Posta 3. Banaketa Unitatea. Donostiako Antiguoko bulegoa		EZ	Adostutakoa ez betetzea	Lanuzteak	IREKITA
Pasaiako Etxez Etxeko Laguntza		BAI	Pleguak	Mobilizazioak	IREKITA

EREMUA	SEKTOREA	FEMINIZATUA	BORROKA AKTIBATZEKO ARRAZOIA	BORROKA MOLDEAK	EGOERA
NAFARROA					
Huerta de Peralta	Landa-eremua	EZ	Akordioak	Greba, elkarretaratzeak, mobilizazioak	IREKITA
Iruñeko Udaleko garbiketa pleguak	Garbiketa	BAI	Pleguak	Elkarretaratzeak, agitazio eta propaganda	IREKITA
5 club deportivo	Kirol kudeaketa	EZ	Hitzarmenak	Greba eta elkarretaratzeak	IREKITA
Orkoiengo igerilekuak	Kirol kudeaketa	BAI	Murrizketak	Elkarretaratzeak	ITXITA
Iruñeko lorezainak	Lorezaintza	EZ	Baldintzak	Lanuzteak eta mobilizazioak	IREKITA
Cener	Bulegoak	EZ	Enpresa hitzarmena	Lanuzteak eta mobilizazioak	IREKITA
Omega	Garbiketa	BAI	Ez-ordaintzeak	Elkarretaratzeak	IREKITA
Sabeco Tutera	Elikadura	BAI	Malgutasuna	Elkarretaratzeak	IREKITA
Pepsico	Elikadura	EZ	EEE	Agitazio eta propaganda	ITXITA
Florette	Nekazaritza	EZ	Ez betetzeak salatu	Greba deialdia, agitazio eta propaganda	ITXITA
Bikarli	Logistika	EZ	Hobekuntzak	Grebak	ITXITA
OT Operalia	Amazonen azpikontrata	EZ	EEE	Agitazio eta propaganda	ITXITA
Berlys	Okindegia	EZ	Hobekuntzak	Elkarretaratzeak	IREKITA
Huerta de Peralta	Nekazaritza	EZ	Ituna	Greba deialdia eta mobilizazioak	ITXITA
Zizurreko Kultur Etxea	Kirol Kudeaketa	BAI	Pleguak	Mobilizazioak	IREKITA
Schneider Electric	Industria	EZ	Enpresa ituna negoiatzea		ITXITA
Microlan		EZ	Lan baldintzen funtsezko aldaketa	Mobilizazioak	ITXITA
Fluitemnik (BSH)		EZ	Aldi Baterako Enplegua Erregulatzeko Espediente (ABEEEE)	Agitazio eta propaganda	ITXITA
Icer Brakes	Kimikak	BAI	ABEEEE	Mobilizazioak	ITXITA
Sacyr Agua	Uraren ziklo integrala	EZ	Soldata igoerak	Agitazio eta propaganda	ITXITA
Uvesa	Hegazti eta untxien hiltegia	BAI	Hitzarmena	Mobilizazioak	IREKITA

LABen EKINTZA SINDIKALEKO TXOSTENA

EREMUA	SEKTOREA	FEMINIZATUA	BORROKA AKTIBATZEKO ARRAZOIA	BORROKA MOLDEAK	EGOERA
NAFARROA					
Uvesa	Hegazi eta untxien hiltegia	BAI	Lan baldintzen funtsezko aldaketa	Batzarrak, inkestak	ITXITA
Papertech	Papergintza	EZ	ABLEEE	Batzarrak, bozketa	ITXITA
Graficas Albeniz	Grafikagintza	EZ	Hitzarmena	Agitazio eta propaganda	ITXITA
Benecke Kaliko (GORBI)	Kimikak	EZ	Zuzendaritzaren jarrera bortitza	Elkarretaratzeak	ITXITA
Viscofan Kaseda	Elikagai industria	EZ	Promoziorako kriterio diskriminatzailea	Elkarretaratzeak	ITXITA
Neinsa	Kimikak	EZ	Enpresa ituna	Elkarretaratzeak	IREKITA
Seinsa	Kimikak	EZ	Soldata ez ordaintzea	Elkarretaratzeak	ITXITA
Papelera San Andres	Papergintza	EZ	Hitzarmena	Elkarretaratzeak	IREKITA
Seinsa	Metalgintza	EZ	EEE partziala eta lan baldintzen aldaketa	Elkarretaratzeak eta lanuzte deialdia	ITXITA
TI Automotive	Kimikak	EZ	Enpresa ituna	Elkarretaratzeak	IREKITA
EROM	Metalgintza	EZ	Lankide baten kaleratzea	Lanuzteak	ITXITA
Osasunbidea	Osasungintza	EZ	Esklusibitatea Lan baldintzak Zerbitzua indartu publikoa defendatu	Greba eta mobilizazioak	ITXITA
Anfas	Aniztasun funtzionala	EZ	Hitzarmena	Mobilizazioa	IREKITA

LABen EKINTZA SINDIKALEKO TXOSTENA (2022/2023)

EREMUA	SEKTOREA	FEMINIZATUA	BORROKA AKTIBATZEKO ARRAZOIA	BORROKA MOLDEAK	EGOERA
EAE					
Alcampok DIA erosi	Elikadura	BAI	Salerosketa	Elkarretaratzeak	IREKITA
Osakidetza	Osasungintza	EZ	Lan baldintzak, zerbitzua indartu, publikoa defendatu	Greba eta mobilizazioak	IREKITA
Eusko Jaurlaritza	Eusko Jaurlaritza	EZ	Ordutegien dekretua. Inposaketa eta kontziliazio neurriak kaltetu.	Lanuzteak eta mobilizazioak	IREKITA
ETBren unitate ibiltaria ETB Miramon / Bilbo		EZ	Unitate ibiltarian aritzen diren langileen lan baldintzak, kilometrajea, ordainketa, ...	Lanuzteak eta mobilizazioak	ITXITA
Eusko Trenbide Sarea	Garraioa	EZ	Hitzarmena. KPI	Lanuzteak eta mobilizazioak	ITXITA
Avanza Debaldea – Donostia / Bilbo / Gasteiz (Lurraldebus)	Garraioa	EZ	Busen egoera txarra, inbertsioak	Mobilizazioak	IREKITA
Justizia	EAE n Eusko Jaurlaritza. Nafarroan estatuko administrazioa	EZ	EAE: 1.- Ekiparazioa (soldatak eta jubilazioa) 2.- Lan postuen balorazioa 3.- Indarkeria-epaitegietarako osagarri iragankorra	Greba eta lanuzteak	ITXITA EAE-N

EREMUA	SEKTOREA	FEMINIZATUA	BORROKA AKTIBATZEKO ARRAZOIA	BORROKA MOLDEAK	EGOERA
HEGO EUSKAL HERRIA					
GLOVO	Riderrak	EZ	Ustezko autonomoak	Mobilizazioak	IREKITA
Posta		EZ	Hitzarmena	Greba	IREKITA

LAB

INFORME DE ACCIÓN SINDICAL (2022-2023)

julio de 2023



ÍNDICE

1.- INTRODUCCIÓN	3
2.- PRINCIPALES CONCLUSIONES DEL INFORME	3
3.- EL CURSO 2022/2023 EN DATOS	4
4.- COMPARATIVA ENTRE CURSOS	5
5.- CADA VEZ MÁS LUCHAS EN CENTROS DE TRABAJO Y SECTORES EN DEFENSA DEL EMPLEO, POR VIDAS QUE MEREZCAN SER VIVIDAS Y CONTRA LA PRECARIEDAD.....	6
6.- FORMAS DE LUCHA Y ALIANZAS	9
ANEXO	10

1.- INTRODUCCIÓN

El conflicto entre capital y vida está cobrando cada vez más fuerza. La lógica del capital y los intereses de una élite económica son los que guían el mundo. El poder y la riqueza se concentran cada vez en menos manos. Necesitamos políticas de reparto del empleo, los cuidados y la riqueza y nuestra acción sindical responde a dicho objetivo. Para ello debemos contar con todas las trabajadoras y trabajadores, desarrollar un sindicalismo feminista y avanzar hacia el desarrollo de un sindicalismo antirracista.

Las y los trabajadores están siendo las y los más perjudicados en un escenario en cuya creación no han tenido ninguna responsabilidad, es así como podemos resumir la situación que vive la clase trabajadora en el mundo y en Euskal Herria. La pérdida de poder adquisitivo, las nuevas formas de precarización, el aumento del empobrecimiento, el desmantelamiento de los servicios sociales... es la realidad de una clase trabajadora que cada día está más dualizada. Si somos mujeres o disidentes de género o sexo, jóvenes, personas migradas o racializadas... la situación nos influirá de forma diferente, ya que la opresión nos afectará de forma más cruda.

LAB apuesta por trabajar por vidas que merezcan ser vividas, y no tenemos más remedio que activar luchas para conseguir dicho objetivo: luchas ligadas a la realidad local, en función de las necesidades de los y las trabajadoras de cada ámbito. La ofensiva del capital es muy fuerte, la patronal no está dispuesta a reducir sus beneficios y no tiene reparos en vulnerar los derechos de la clase trabajadora. Además, los partidos políticos que gestionan las instituciones no tienen ningún reparo en impulsar la privatización de los servicios públicos ni en proteger al capital a través de sus políticas públicas.

La clase trabajadora ha entendido cuál es la situación. No tenemos más remedio que luchar para que las condiciones de trabajo y de vida de los y las trabajadoras no empeoren; si queremos dar nuevos pasos en el proceso de construcción de vidas que merezcan ser vividas será imprescindible la lucha y la movilización. Terminamos el curso con un notable incremento de las luchas sindicales, y la apuesta para el próximo curso también es clara: seguiremos intensificando la activación de dichas luchas.

2.- PRINCIPALES CONCLUSIONES DEL INFORME

El análisis de las luchas activadas en este curso nos deja tres conclusiones principales:

- LA LUCHA MERECE LA PENA.

